

- **Funtsezko elkarteak**

Gure proiektua festetara eta plan berezietara joateko autobus zerbitzua da, bereziki gazteei zuzendua. Baina, noski horretarako hornitzaile eta bazkide batzuk behar ditugu. Lehenik eta behin, autobus enpresak dira garrantzitsuenak, autobusekin eta gidariekin zerbitzua emateko. Horregatik Irizar enpresarekin akordio batera iritsi gara. Akordio horretan, honako hau adostu dugu: Guk aplikazioaren bidez bidai eskaerak antolatzen ditugu, eta bidaiaren informazioa Irizarri iritsiko zaio. Hauek autobusa prestatzen dute eta bidaiariei zerbitzua ematen diete. Zerbitzuaren kostua guk erabiltzaileek ordaindutakoarekin konpentsatzen dugu. Akordio honi esker, beti izango dugu autobusa eskuragarri, bidaiak erraz eta azkar antolatzeko.

Bestetik, Irizar enpresarekin baldintza hauek adostu ditugu: Autobusa eskuratzeko, gutxieneko erabiltzaile kopurua 35 pertsonakoa izan behar du, Irizarrek autobusa antolatzeko gutxienez 24 ordu lehenago iritsi behar zaio informazioa, bestela bertan behera geratuko da irteera, Irizarrek autobusak egoera onean eta segurtasun-neurri guztiekin eskaini behar ditu eta azkenik gutxieneko erabiltzaileen kopurua betetzen ez bada, bidaiak bertan behera geratuko da.

Bigarrena, segurtasun-empresak dira, bezero edo erabiltzaileei segurtasuna zaintzeko. Beraz, horretarako seguridadeko pertsona bat kontratatu dugu, langile hau, antolatzen diren bidai guztietan egongo da, horrela bezeroen eta gidariaren segurtasuna guztiz bermatuta egongo da, arazoak izan ezker berak beharrezko laguntza bermatuko du. Gainera, aplikazio bat sortu dugu eta gure zerbitzuari publizitatea egiteko sare sozialetan bereziki instagramean eta Facebooken hainbat kontu sortuko ditugu eta egunero argazki eta bideo ezberdinak igoko ditugu, horrela jendearen atenzioa lortuz. Azkenik, dirua kudeatzeko eta arazoak ez sortzeko, lankide bat kontratatu dugu. Baina, bezeroak erreztasunak izateko, aplikaziotik ordainduko dute, eta bizumaren bidez egingo dute transferentzia. Beraz, dirua kudeatuko duen langilearekin ez dira harremanetan jarri beharko, bakarrik ordaintzeko edo diruarekin arazoak izango balituzte. Bazkide hauek ezinbestekoak dira gure proiektuak ondo funtzionatzeko bazkideei zerbitzu ona eskeintzeko.